

MUNDUA


ESTATUZ ESTATU

Subiranotasuna duen entitate territorial-politikotzat hartzen badugu estatuak, 193 estatu daude munduan lerrook idazterakoan, 1997ko martxoan. 193 horietatik 8 ez daude Nazio Batuen Erakundean (NBE) sartuta, baina hau bestelako arazoa da. Hitzaren jatorrizko esanahia alde batera utzirik, egonkortasunetik oso urrun dago gaur egungo munduaren estatu-banaketa, bai kopuruari, bai mugei eta bai horietako bakoitzaren status politikoari dagokienez.

Bestalde, faktore ugari direla medio 193 estatu horien arteko aldea horren handia izaki, nekez aplika diezaiekegu denei kontzeptu berbera: estatu subiranoen artean badaude besteak baino *independenteagoak* direnak (NBE beto-erakundeak dutenak, adibidez) eta badaude besteak baino *subiranoagoak* direnak (Zazpi Handiak deituak, esate baterako). Baina hala ere, batik bat estatutik dago taxututa munduaren geografia politikoa.

Aldeak eta desberdintasunak ahanzi gabe, 193 estatuek informazio berezia dute Munduko Atlasaren bigarren atal honetan. Populazio, ekonomia eta politikari buruzko datuen bidez, mapa fisikoen bidez, nahiz bestelako elementu eta datu orokorren bidez itxuratu dugu estatu horietariko bakoitza.

Baina horretara heldu aurretik, munduaren eta kontinenteen deskribapen globala topatuko duzu, alfabetikoki ordenatuta datozen estatuen gora-beherak ulertzen lagungarri gerta litekeelakoan.



Mundua	38
Mapa fisikoa	38
Kontinenteak	40
Mendi, ibai, barne-itsaso, laku eta irla nagusiak ..	40
Ozeano, itsaso eta fosa nagusiak	41
Kontinenteak	41
Afrika	41
Mendi, ibai eta laku nagusiak	41
Estatuak	41
Mapa fisikoa	42
Mapa politikoa	43
Afrikaz kanpoko estatuen menpeko lurraldeak ..	44
Amerika	44
Mendi, ibai, laku eta irla nagusiak	44
Estatuak	45
Amerikaz kanpoko estatuen menpeko lurraldeak ..	45
Mapa fisikoa	46
Mapa politikoa	48
Asia	50
Mendi, ibai, laku eta irla nagusiak	50
Estatuak	50
mapa fisikoa	51
mapa politikoa	52
Asiaz kanpoko estatuen menpeko lurraldeak	53
Europa	53
Mendi nagusiak	53
Ibai, penintsula, irla, laku eta barne-itsaso nagusiak ..	54
Estatuak	54
Mapa fisikoa	54
Mapa politikoa	56
Ozeania	58
Mapa fisikoa	58
Mapa politikoa	60
Estatuak eta Ozeaniaz kanpoko estatuen menpeko lurraldeak	62
Basamortu, mendi eta irla nagusiak	62
Munduko estatuak, Atik Zra	63

(Estatuetako toponimoen zerrenda eta aurkibidea liburu honen atzealdean topatuko duzu)

